

KONGRESUKO EUSKAL TALDEAREN (EAJ-PNV) PROPOSAMENA EKIALDEKO KRISIAREN ETA EKARRI DITUEN ONDORIO SOZIOEKONOMIKOEI AURRE EGITEKO

1. NEURRI FISKALAK ETA ENERGIAREN PREZIOA MURRIZTEA

1.1. Argindarraren Zerga Berezia murriztea

Argindarraren Zerga Berezia aldi baterako murriztea, kontsumitzaile partikularren eta enpresen faktura arintzeko, neurriarekin jarraituz aurreko hiruhilekoko eguneko merkatuko energia elektrikoaren batez besteko prezioa Gobernuak **handizkako merkatuen** bilakaeraren arabera zehazten duen atalasearen gainetik dagoen bitartean.

1.2. Argindar-ekoizpenaren Balioaren gaineko Zerga ezabatzea

Argindarra sortzeko zergan %0ko tasa ezartzea, elektrizitatearen azken prezioa zuzenean murriztuz.

1.3. Argindarraren BEZa murriztea

Tipoa murriztea argindarrari aplikagarri zaion BEZaren %5era, hau da, europar araudiak ahalbidetzen duen gutxienekora, oinarritzko hornigaia dela kontuan izanik. Argindarra ezinbestekoa da etxeetan eta jarduera ekonomikorako, eta EBk tipo murriztuak erabiltzea ahalbidetzen du.

1.4. Garraio- eta banaketa-tarteetan %80eko murrizketa

Argindarraren %80 hobaria berreskuratzea eta finkatzea argindar-tarteetan kontsumitzaile elektro intentsiboentzat, industriaren lehiakortasuna indartuz.

1.5. CO₂ren zeharkako kostuen konpentsazioa

Isuri-eskubideen enkanteetako diru-sarreraren %25 CO₂ren zeharkako kostuak konpentsatzera bideratzea.

1.6. Gasa eta biomasa. BEZa aldi baterako murriztea

%10eko BEZa aplikatzea Europar Batasunaren barruan biomasatik eta egurretik eratorritako gas naturala, briketak eta pelletak entregatzeari, inportatzeari eta eskuratzeari, neurri hau hiru hilean behin berrikusita. Neurriari eutsiko zaio aurreko hiruhilekoan gasaren edo bioerregaien batez besteko prezioa Gobernuak energia-

merkatuen prezioen bilakaeraren arabera zehazten duen atalasearen ginetik dagoen bitartean.

2. FAMILIAK BABESTEA

2.1. Funtsezko hornigaien prezioa mugatzea

Muga bat ezartzea gasaren ABTan lehengaiaren kostuaren igoeran eta butano bonbonarako gehieneko prezio arautua mantentzea.

2.2. Babes indartua kontsumitzaile kalteberentzat

Gizarte-bonuaren deskontu espezifikoa berreskuratzea kontsumitzaile kalteberentzat eta kaltebera larrientzat.

2.3. Kontsumitzaile kalteberentzat edo gizarte-bazterkeriako arriskuan daudenentzat elektrizitate-, gas- eta ur-hornidura eteteko debekua berrezartzea.

3. ERREGAIEN GAINEKO NEURRIAK

3.1. Erregaiaren prezioan aparteko hobaria aplikatzea sektore profesionalentzat (garraioak, nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza)

Gasolioaren eta gasolinaren behar handiena duten sektore profesionalentzat (salgaien eta bidaiarien garraioa, taxiak, VTC, nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza) litroaren prezioaren aparteko hobaria ezartzea, hiru hilean behin berrikusita, aurreko hiruhilekoan erregaiaren batez besteko kostua handizkako merkatuen prezioen bilakaeraren arabera Gobernuak zehaztutako atalasearen ginetik dagoen bitartean.

4. ETE, LANGILE AUTONOMO ETA LEHEN SEKTOREA BABESTEA energia- eta logistika-kostuen aldakortasunaren aurrean arriskurik handiena duen ekonomia- eta ekoizpen-sarea babesteko.

4.1. Estatuaren abalen lerroa bereziki ETE eta langile autonomoentzat

Estatuaren abalen lerroa zabaltzea nazioarteko merkataritzako nahasmenduek, tentsio geopolitikoek, energia-merkatuetako aldaketek eta hornidura-kate globaletako disrupzioek eragindako enpresak barne hartuz.

4.2. Gizarte Segurantzako kuotak geroratzea

Gizarte Segurantzako kuotak eta baterako diru-bilketaren kontzeptuak geroratzea ahalbidetzea energia-kostuen gehikuntzak eragindako enpresa eta autonomoentzat.

4.3. Aldi baterako laguntza zuzenak errepide bidezko garraio sektoreko langile autonomo eta ETEentzat, baldin eta EJSN espezifikoa izanik, erregaiaren kostuak handitzearen ondorioz inpaktu esanguratsua dutela egiaztatzen badute. Laguntza horiek aktibatu ahal izango dira erregaien prezioa ohiz kanpo igotzen bada, Gobernuak zehazten duenaren arabera.

4.4. Garraiolarietara aukera ematea bide-azpiegitura jakin batzuetan erabileraren araberrako kobrantza sistemetatik eratorritako kostuak jasanarazteko, Salgaien errepide bidezko garraioaren kontratuari buruzko 15/2009 Legearen 39. artikulua modifikatuz.

4.5. Nekazaritzako lehengaien garestitzearen ondorioz, nekazaritza-jardueran erabilitako ongarrien BEZa aldi baterako %0ra murriztea.

4.6. EJSN espezifikoa duten gas-enpresa intentsiboetara aldi baterako zuzeneko laguntzak ezartzea, baldin eta gasaren kostuak handitzearen ondorioz inpaktu esanguratsua dutela egiaztatzen badute. Laguntza horiek aktibatu ahal izango dira gasaren prezioaren aparteko igoeren kasuan, Gobernuak ezarritakoaren arabera.

5. NEURRI FISKALAK AUTONOMOENTZAT ETA ENPRESA TXIKIENTZAT

5.1. Autonomo eta enpresari txikiak BEZa ordaintzetik salbuesteko Europako Zuzentaraura egokitzea

EBren 2020/285 Zuzentaraua aplikatuz, zeinak Estatu kideei ahalbidetzen baitie enpresari txikiak BEZa ordaintzetik salbuesteko erregimen berezi bat, operazioen bolumenari dagokionez 85.000 eurorainoko atalasea aurreikusiz.

6. ARGINDARRAREN MERKATUAN ALDI BATERAKO ESKU HARTZEKO NEURRIAK

6.1. Gasari muga ezartzeko mekanismoa berreskuratzea (Salbuespen iberikoa)

2022an erabiltzen hasi zen tresna berrezartzea eta eguneratzea, aktibazio-atalaseak gasaren prezioen benetako bilakaerara egokituz, mekanismoak berriro ere ondorioak izan ditzan gero eta prezio handiagoko egoera batean, gasaren prezioak elektrizitatearen handizkako prezioaren eraketan duen inpaktua mugatuz eta, horrela, kontsumitzaile eta enpresentzako energia-kostuak mugatuz.

7. ERAGINKORTASUN ENERGETIKOA ETA ELEKTRIFIKAZIOA SUSTATZEA

7.1. Mugikortasun elektrikorako 2/2026 dekretuan aurreikusten ziren zerga-pizgarriak berreskuratzea.

Etxebizitzetan eraginkortasun energetikoa hobetzeko lanengatiko kenkariak berreskuratzea.

7.2. Eraginkortasun Energetikoaren Funts Nazionala eta Eraginkortasun Energetikoaren Betebeharren Sistema Nazionala aldatzea, 2023/1791 (EB) Zuzentaraura egokitzeko, eta lurraldean gertatzen diren azken energia-kontsumo guztiak atzitzea, kontsumo errealetan oinarritutako kalkulu-metodologia "ex ante" aplikatuz, sistemaren alta eta baja estrategikoetan iruzurra saihesteko eta iruzurrari aurre egiteko.

7.3. Eraginkortasun energetikorako inbertsioak egingo dituzten enpresei zuzendutako ICOren abalen lerroak zabaltzea.

8. POLITIKA INDUSTRIAL ENERGETIKOA ETA EUROPAR BATASUNEAN JOKATZEKO MODUA

8.1. Europar araudiak industria garbirako ematen dituen laguntzen potentziala (CISAF) maximizatzea eta arriskuak aztertzea laguntza marko honen barruan beste Estatu kideek egin lezaketenaren aurrean

8.2. Europako Batzordean zeharkako CO₂renгатiko konpentsazioen sektore onuradun gehiago aurreikustea, deslokalizazio-arriskuan dauden industria-jarduerei dagozkien EJSN kode berriak gehituz.

8.3. Industria siderurgikoaren interesak defendatzea, bereziki altzairuaren merkatua arautzeari buruzko eztabaidan, eta lan egitea Karbono bidezko Mugako Doikuntza mekanismoa (CBAM) altzairutik eratorritako produktuei ere aplikatu dakien.

8.4. Enpresa Estrategikoen Kaudimenari Laguntzeko Funtzaren (FASEE) arau-esparrua aldatzea, zorra kapitalizatzeko eta berregituratzeko mekanismoak malgutzeko, AEBren muga-zergak eta Ekialdeko gerraren ondorioz energiaren prezioaren igoerak jo dituen enpresei laguntzeko.

9. INBERTSIOAK BIZKORTZEA SAREETAN ETA ENERGIA BERRIZTAGARRIETAN

9.1. Garraio-sarearen plangintza malgutzeta, sortzen diren premiekin bat datozen aldaketak sartzea ahalbidetuko duten aldizkako berrikuspenen bidez.

9.2. Energia sortzeko lantegietan mugarriak betetzeko epeak luzatzea, sare elektrikora sartzeko eta konektatzeko baimenak proiektu erreal, bideragarri eta administrazio-heldutasun maila nahikoarekin erabiliko direla ziurtatzeko, sarean gaitasunaren okupazio espekulatiboa saihesteko, 7/2025 Errege Lege Dekretuan (indargabetutakoa) aurreikusitakoaren espiritua berreskuratuz.

9.3. Sorkuntza-lehiaketetarako gordetako ahalmenaren %10rainoko tartea autokontsumorako instalazioetarako erabiltzea, ahalmen erabilgarria aprobetxatzeko, autokontsumoaren garapena bultzatzeko eta lehiaketak egiten diren bitartean sarearen edukiera gutxiegi erabiltzea saihesteko.

10. ADMINISTRAZIO PUBLIKOETARAKO ETA KONTRATAZIORAKO NEURRIAK

10.1. 2025eko ekitaldiko superabitaren erabilera gaitzea toki-erakundeei eta autonomia-erkidegoei, lurraldeetako inpaktu ekonomikoa eta soziala arintzera bideratutako presako jarduketak finantzatzeko aukera emanez.

10.2. Kontratu publikoetan prezioak berrikustea, lizitazio hutsak eta funtsezko inbertsioak geldiaraztea saihesteko, kostuak krisiaren ondoriozko inflazio-presioari egokitzeko aukera emanez eta proiektu publikoen jarraitutasuna eta langileen eta enpresa hornitzaileen erosteko ahalmenaren babesa bermatuz.

10.3. Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legea aldatzea (kontratu txikiak). Kontratu txikien gehieneko zenbatekoak inflazioaren bilakaeraren arabera eguneratzea, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko 9/2027 Legea indarrean sartzen den unean lehenagoko erosteko ahalmen errealari eusteko eta mikro enpresek eta autonomoek kontratazio publikoan duten partaidetza ez kaltetzeko.